



**Espedientearen kodea:** 2023zz020014

**Espedientearen gaia:** 2023ko Berdintasunerako deialdian emandako dirulaguntzen zerrenda

**Titularrak:** Eskatzaileak

## IRAGARKIA

Oiartzungo Udalaren 2022-2024rako diru laguntzen Plan Estrategikoarekin bat, Oiartzunen berdintasunerako jarduerak antolatzeko dirulaguntza oinarriak eta 2023ko deialdiaren iragarkia abenduaren 18an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

Deialdi hori ebatziz, 2024ko urtarrilaren 18ko 88. Dekretuz, Alkateak honako ebazpena eman du:

“2023ko azaroak 29an 2023/1718 zenbakidun Alkate dekretuz 2023an Oiartzunen aurreikusitako berdintasunerako jarduerak antolatzeko dirulaguntzak banatzeko oinarriak eta 2023ko deialdia onartu ziren. Behin oinarriak BNDSen argitaratu ondoren, 2023koa abenduaren 18an argitaratu zen deialdiaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Diru laguntza hauetan kontuan izan dira 38/2003 diru laguntzak arautzen dituen Lege Orokorra, Oiartzungo Udal Ordenantza Orokorra, 2022-2024rako diru laguntzen Plan Estrategikoa eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabe bizitzeko legearen testu bategina.

Dirulaguntzak aurkezteko epe barruan, lau elkartek eginiko bost eskaera aurkeztu dira. Eskaeren artean dirulaguntza jasotzeko baldintzak betetzen ez dituzten egitasmoei dirulaguntza ukatzea proposatzen da ondorengo arrazoiengatik:

- 2023-7602 sarreradun eskaera: Oiartzungo Udalaren 2023-1149 zenbakidun dekretuan Oiartzungo Xanistebanak jaietan ekitaldiak antolatzeko dirulaguntzak ebatzi ziren, bertan, aurrekontuaren gaineko ekintzaren kostu osoa ordaintzea ebatzi bait zen kontzeptu beragatik, ez dagokielako administrazio berdineko aurrekontuaren kargura beste dirulaguntza bat jasotzea objektu berdinerako.
- 2023-7600 sarreradun eskaeran dirulaguntza ematen den ekitaldi ekonomikoan ez, baizik eta beste batean gauzatuko diren jarduera edo ekitaldiak egitea xede duten ekintzak ezin dira diruz lagundu, horregatik, 2024rako ekintzetarako dirulaguntza ukatzen zaie.

Berdintasunerako dirulaguntzen oinarrien baldintzak betetzen dituzten eskabideak aztertu dira; deialdiaren helburuak betetzen dituztela eta aurkeztutako proiektuak gutxieneko puntuak lortu dituztela aintzat hartuta ondorengo proposamena egiten da:

ESKATZAILEA	JARDUERA	PUNTUA K	DIRULAGUNTZA
Oiartzungo Feministen Asanblada	Oiartzun Feminista Eraikiz	97	2000
Kuku haur eta gazte literatura elkarte	Bidaia bat opari eta 11 aukera egitasmoa	77	383,33
Martzelina Bertozale elkarte	Martzelina Lopetegi Olaizen izena ezagutzera ematea	70	957,27

Toki Jaurbidearen Araudiak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzan,



OIARTZUNGO  
UDALA

## ERABAKI DUT

Lehen: dirulaguntza jasotzeko baldintzak betetzen ez dituzten egitasmoei dirulaguntza ukatzea.

Bigarrena: ikusita dirulaguntza zuritzeko beharrezko dokumentazio aurkeztu dutela, ondorengoei dirulaguntza onartu eta ordaintzea:

- Oiartzungo Feministen Asanbladari 2000 euroko dirulaguntza ordaintzea.
- Bigarrena: Kuku haur eta gazte literatura elkarteari 383,83 eroko dirulaguntza ordaintzea.
- Hirugarrena: Martzelina Bertsozale elkarteari 957,27 euro ordaintzea.

Hirugarrena: dirulaguntza hauek ordaintzeko, guztira, 5000 € euroko izendapena zuen Oiartzungo Udalaren 2023 urteko aurrekontuko 1 1005.480.231.50.09 2023 (A 2939-2023) zenbakidun partidaren kontura ordainketa egitea.”

Sinaduraren egunean

Xabier de la Mota Vazquez

Idazkaria

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESK0dcde1a6-eb95-427b-bda3-1c895c66738a**

*Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:*

<https://ust.gipuzkoa.eus?De=06310>

*Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica:* <https://ust.gipuzkoa.eus?De=06310>



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2023ZZ020014-iragarkia/. ()

Sinatzailea 1 / Firmante 1: XABIER DE LA MOTA VAZQUEZ - 72512750Y  
Data / Fecha: 2024/02/01 13:43:48